



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bilboko Udala

Bilboko Gobernu Batzordearen 2024ko abenduaren 18ko Hitzarmenaren laburpena, hurrengo arloan diru-laguntzen deialdia egiteko dena. Garapenerako lankidetzak eta giza-eskubideak 1 Arloa: urtebeteko programak gastu arrunta. BDNS (Identif.): 803947.

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/803947>).

Bat. – Onuradunak

Egoitza nagusia edo ordezkari finkoa Bilbon (dokumentu-bidez egiaztatuta) daukaten elkarte eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateak izango dira. Euren helburuetan garapenerako nazioarteko lankidetzak agertzea beharrezkoa da.

Bi. – Helburua

Garapenerako nazioarteko lankidetzak, urtebeteko programak: helburu nagusia gastu arrunta dutenak bultzatzea.

Hiru. – Oinarri arautzaileak

Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundearen eta entitatearen deialdiaren bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautuko dituen Ordenantza Orokorra (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 138 zk., 2016-07-20koa).

Lau. – Zenbatekoa

Deialdi honetarako zenbatekoa 688.249,00 euro da. Diruz laguntzeko kontzeptuari aplikatzeko erregimena norgehiagoka da. Gehienezko diru-kopurua programako: 70.000 euro.

Bost. – Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunean hasi eta 2025eko otsailaren 21ean amaituko da.

Sei. – Beste datu batzuk

Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzak proiektuei laguntzeko eskabidearen inprimakia (2025. urtea) deritzon ereduaren arabera.

Bilbon, 2024ko abenduaren 18an.—Giza Eskubideak, bizikidetzak, Lankidetzak eta Kulturartekotasun Saileko Zinegotzi ordezkaria, Iñigo Zubizarreta Aguirrezabal